

2017KO EKITALDIAN EKOBERRIKUNTZA PROIEKTUAK EGITEKO LAGUNTZAK NOLA ESLEITU ARAUTZEKO OINARRIAK

Xedea, Irismena eta interes handiko gaiak

Oinarri hauen helburua da 2017ko ekitaldian ekoberrikuntza-proiektuak egiteko laguntzak arautzea. Deialdi honek bi laguntza-lerro proposatzen ditu.

1. lerroa irtenbide berritzaileak aplikatzeko proiektuetara bideratuta egongo da. Horien helburua teknologia erakustea da, berrikuntza ez-teknologikoaz osatuta, bai eta EAEn produktu, zerbitzu, negozio-eredu edo balio-kate berriak sortzeko bideragarritasuna ebaluatzeko beharrezkoak diren datuak eskuratzea ere, garapenera begira aurrerantzean nazioarteko I+G+B proiektuetan parte hartzeko bokazioa duten proiektuak beharko baititu.

2. lerro bat, ekonomia zirkularreko proiektu bultzatzaile bakar bat sustatuko duena. Proiektuak jauzi diferentziala eman behar du sektorean, balio-katearen jardura kolaboratzailearen bidez, eta nazioarteko dimentsioa izan behar du. Proiektuak gaitasun berriak ekarriko lituzke eta inpaktu-potentzial handia izango luke, eta, horrez gain, erakunde ugari egingo lioke mesede. Ingurumen- edo lehiakortasun-erronka bat konpontzea da helburua, kolaborazio-ikuspegi zabal batetik.

LAGUNTZA- LERROAK	ZTBP- KO ILDO ESTRATEGI- KOAK	ZENBATEKOA
1. lerroa Ekoberrikuntza- proiektuak	Produktu berriak eta negozio berdeagoak	475.000
	Hondakinen balorizazioa	
	Teknologia eta prozesu garbiagoak	
	Airea, ura eta lurzorua: tratatzea eta lehengoratzeta	
	Klima-aldaketara egokitzea eta hori arintzea	
	Zerbitzu ekosistemikoak	
2. lerroa Ekonomia zirkularra bultzatzeko proiektuak	Ekonomia zirkularreko ekimen estrategikoa (prestatzen)	200.000

LAGUNTZA- LERROAK	INTERES HANDIKO GAIK
1. lerroa Ekoberrikuntza- proiektuak	Balio-katearen trakzio jasagarria
	Produktu eta osagaien birmanufaktura, konponketa aurreratua eta berrerabilera
	Plastikoak eta konpositeak birziklatzea
	Teknologia eraginkorrak garatzea, baliabideak erabiltzeari begira
	Giltzarri diren materialak ordezkatzeta edo birziklatzea
	IPPC sektoreetan eskura diren teknologia onenak (galbanoteknia eta galdaketa)
	Elikadura zirkularra
	Zerbitzazioa, produktu-zerbitzu negozio-ereduak
	Hiria lehengoratzeta
Lurzoruaren babesa	
2. lerroa Ekonomia zirkularra bultzatzeko proiektuak	Plastikoak eta konpositeak berreskuratzea
	Birmanufaktura
	Teknologia garbiak
	Giltzarri diren materialak

Proiektuak gauzatzeko epea

Laguntza eman izanaren jakinarazpena egin eta gehienez ere hilabeteko epean ekin beharko zaie proiektuei. Emaitzen azken txostena eta behin betiko memoria ekonomikoa 2019ko martxoaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira; 2. lerroako, berriz, 2019ko urriaren 30a izango da mugaeguna.

Halaber, 1. lerroan finantzatu beharreko lanen % 50 gutxienez gauzatura daudela egiaztatu beharko dute 2018ko uztailearen 30erako.

Nolanahi ere, proiektuak ezingo dira martxan ipini harik eta laguntzak eman direla jakinarazi arte.

Laguntzen zenbatekoa eta lagundu daitezkeen gastuak

1. lerroan, proiektuaren zenbatekoaren % 25 arte; gehienez 100.000 euro proiektu bakoitzeko,

2. lerroan, proiektuaren zenbatekoaren % 25 arte; gehienez 200.000 euro,

Laguntzako intentsitateak aurrez aipatutako muga ekonomikoaren barruan handitu ahal izango dira, deialdiko 7. artikulua adierazten duen moduan:

Honako kostu hauek finantzatu ahal izango dira

- a) Proiektuko enpresa nagusiaren eta bazkideen langileen kostuak (ikertzaileenak, teknikariarenak eta frogaketa esperimentalean laguntzen duten gainerako langileenak, baldin eta erakunde eskatzailearen langileak badira), betiere proiektuan aritzen diren neurrian. Langileen kostu zuzenak bakarrik joko dira halakotzat.
- b) Materialei, produktuei edo makinaren errendimenduari dagozkien entseguen kostuak, enpresak erregularitasunez egiten dituen probak gainditzen badituzte.
- c) Buruaren edo bazkideen materialen eta ustiaketa-horniduren kostuak, esaterako ikerketa-jardueraren zuzeneko emaitza gisa hartutako proben prototipoak elaboratzeari dagozkionak.
- d) Gastu orokor gehigarrien kostuak, soilik proiektuaren xedearekin zerikusia duten lekualdaketetarako (adibidez kanpoko bazkideekin egindako bileretarako) edo probak gauzatzeko materialak edo ekipamenduak bidaltzeko.
- e) Kanpo-aholkularitzako eta zerbitzuetako bestelako kostu baliokideak, haien artean proiektuaren zati oso espezializatuak azpikontratatzeko eta ezagutza teknikoaren gaineko aholkularitza eta zerbitzu baliokideak eskuratzea, betiere proiektuak iraun bitartean modu eksklusiboan eta iraunkorrean erabiltzen badira.

Honako hauek laguntzaren xede diren kostuetatik kanpo geratuko dira:

- BEZa eta gainerako zeharkako zergak, nola eta ez den egiaztatzen kostua eragiten diola onuradunari
- Aretoak alokatzea, dietak eta antzekoak;
- Sustapenerako eta marketinerako materiala sortzea;
- Software-lizentziak eskuratzea;
- Merkataritzako web edo plataformak garatzea;
- Laguntza esleitu aurretik sortutako edozer gastu.

Laguntza-eskabidea aurkezteko epea eta modua

- 1.- Eskabideak aurkezteko epea, bi lerroetarako, 2017ko urriaren 17an amaituko da, 13:00etan.
- 2.- Laguntza-eskaerak IHOBEn aurkeztuko dira, I. eranskinean jasotako gidoiaren eta gainerako eranskinetako dokumentuen arabera, eta formatu elektronikoan bakarrik (USB memoria edo tankerakoa).

Barne prozedurako epeak eta tramiteak

<p>2017ko irailaren 29a (hau ere barne)</p>	<p>I. eranskina (barne dokumentua) igorri, proposatutako pertsonalaren zerrendarekin, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak berrazter dezan. Eranskina helbide honetara bidali behar da: convocatorias.dgi@ehu.eus . Mezuaren gaien hau idatzi behar da: "Ekoberrikuntza Proiektuak 2017". Ikerketaren arloko Errektoreordetzak berraztertuta itzuliko da, taldeetan sartzeko bateraezintasunik ez duten pertsonak azalduta, eta aurrekontua prestatzeko kasu bakoitzari egozten zaion pertsonal propioaren kostuaren kalkulua ere bai.</p>
<p>2017ko urriaren 11 (hau ere barne):</p>	<p>Bidali eskabidea/Proiektuaren Memoria helbide honetara: convocatorias.dgi@ehu.eus. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak berraztertuko ditu aurkeztutako agiriak eta UPV/EHUko legezko ordezkariak sinatuta igorriko du deialdian eskatutako erakunde bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpena.</p> <p>Ikertzaile nagusiak aurkeztuko du eskabidea IHOBEn deialdiko epea amaitu baino lehen (2017ko urriaren 17ko 13:00ak), eta eskabidea epean aurkeztu izanaren frogagiria bidali beharko du convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera espedientean artxibatzeko.</p>

GARRANTZITSUA: Agiriak lehen adierazitako epeetan ez aurkezteak zailtasunak sortuko ditu legezko ordezkariaren sinadura lortzeko eta eskabidea "aurkeztu gabe" erregistratuko da.

Harremanetarako:

IKERKETAREN ERREKTOREORDETZA	ARLOKO	IHOBE
94 601 80 08 (convocatorias.dgi@ehu.eus)		94 423 07 43

Informazio gehiago:

<http://www.ihobe.eus/ContenidosPlanos/Ficha.aspx?IdMenu=6F7B6A97-10B5-4FCE-B700-C69901C3E73F&Idioma=eu-ES>